

IGEn KUDEAKETARAKO

oharrak eta gomendioak



Oharra: gida hau 2011ko maiatzan argitaratu da.

Gidaren edukia zein etorkizunean egingo diren eguneratzeak Federazioaren webgunean kontsulta daitezke, eta baita bertatik jaitsi ere: **www.bige.org** "IGEak" atalean.

SARRERA	4
1.- ZER DA IGE (IKASLEEN GURASOEN ELKARTE) BAT?	5
1.1. Ezaugarriak	6
1.2. Helburuak	6
1.3. Eskumenak	7
2.- IGEen BETEBEHARRAK.	9
2.1. Legezko betebeharrak	9
2.2. Zerga betebeharrak	12
3.- IGEen KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK	13
3.1. Batzar Orokorra	14
3.2. Zuzendaritza Batzordea	14
4.- IGEen KUDEAKETARI LOTURIKO BESTE GAI BATZUK	19
4.1. Jarduerak	19
4.2. Ekonomia	22
4.3. Artxiboa	24
4.4. Erantzukizuna	26
5.- BIGE GURASOEN ELKARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	28
5.1. BIGE ZURE ESANETARA.	29
5.2. BIGE Gurasoen Elkartearekin harremanetan jartzeko bideak	32

aurkibidea

SARRERA

Bizkaiko **Ikasleen Gurasoen Elkarteei (IGEak)** eta, bereziki, elkarte horietako Zuzendaritza Batzordeko kideei Elkartearen kudeaketan laguntzeko eta ordezkapen eta berritze prozesuan laguntzeko gida bat eskuragarri jartzea da argitalpen honen xedea.

Urteen joanean egiaztatu dugunez, IGEen zuzendaritza eta kudeaketa beren gain hartu duten pertsonak ordezteko garaian, zailtasun ugari sortzen dira, hainbat alderdiri buruzko ezjakintasunaren ondoriozkoak asko eta asko; hala nola, IGEaren zereginari, legearen arloko betekizunei, beren gain hartu beharreko erantzukizunei, diru-laguntzen kudeaketari, erabakiak hartzeari eta abarri buruzko ezjakintasunaren ondoriozkoak.

Azken batean, IGEen kudeaketaren egunerokotasuna osatzen duten alderdiek era askotako nahasmenduak eta zailtasunak eragin ditzakete, bai barne kudeaketan bai IGEen kanpoko harremanetan eta, zenbaitetan, informazio egokirik eza izaten da horren arrazoia.

Gida honetan ez dugu IGEen kudeaketari buruzko alderdi guztiak banan-banan eta zehaztasunez lantzeko asmorik; horretarako, argitalpen askoz ere zabalagoa eta, ziur

asko, erabiltzen zailagoa argitaratu beharko genuke. IGEak zuzentzeko eta kudeatzeko erantzukizuna beren gain hartzen duten pertsonen elkartearen kudeaketari berme gehiagorekin heltzen lagunduko dieten urratsak eskaintzea da, azken batean, gure asmoa.

Edonola ere, Federazioaren webgunean (**www.bige.org**), IGEentzako Informazioa atalean, IGEen antolamenduari eta kudeaketari buruzko informazio zehatzagoa aurki daiteke.

Hala ere, litekeena da ez gida honetan ez webgunean behar adina informaziorik ez aurkitzea konponbide bereziagoren baten premia izan dezaketen zenbait egoera konplexu konpontzeko. Gogorarazi nahi dugu bazkide diren IGEei aholkularitza eta orientazioa ematea dela **BIGE** Guraso Elkartearen funtzio nagusia eta halako egoerarik suertatuz gero atsegin handiz lagunduko dizuela. Beraz, egoki irizten diozuenean jar zaitezke gurekin harremanetan, inolako zalantzarik gabe **bige@bige.org** posta elektronikora idatziz edo **944169360** telefonora deituz. Gida honen 5. atalean Federazioari buruzko informazio praktikoa eskaintzen dizuegu, baita gure zerbitzuen laburpena eta langile teknikoekin harremanetan jartzeko modua.

1

ZER DIRA IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAK (IGE)? EZAUGARRIAK, HELBURUAK ETA ESKUMENAK



Ikasleen Gurasoen Elkartea (IGE) ikastetxe berean matrikulatutako seme-alaben gurasoek osatutako talde bat da, iraunkorki jarduerak egiteko helburuarekin modu demokratikoan antolatua, irabazi asmorik gabea, eta inolako gobernu erakunderen, alderdi politikoren, erlijio sinesteren eta enpresaren mende ez dagoena.

IGEak honako lege eta dekretu hauen arabera arautzen dira:

- Otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari Buruzkoa.
- Ekainaren 22ko 7/2007 Legea, Euskadiko Elkarteei Buruzkoa.
- Otsailaren 10eko 66/1987 Dekretua, Euskadiko IGEak arautzen dituenak. ➔



(Legedi hau BIGEren webgunean kontsulta daiteke IGEak eta Legeria ataletan)

ZER DIRA IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAK (IGE)? EZAUGARRIAK, HELBURUAK ETA ESKUMENAK

1.1. IGEen EZAUGARRIAK

- Honako interes komun honek elkartutako pertsona taldea izatea: seme-alabak eta horien ikastetxeak.
- Helburu eta xedeei dagokienez bat etortzea.
- Modu demokratikoan jardutea.
- Inongo talde politiko eta erlijiosoren mende ez egotea.
- Irabazi-asmorik eza. Atal honetan argitu beharra dago zer esan nahi duen irabazi asmorik gabekoa izateak: besterik gabe adierazi nahi da IGEen diru-sarrerak, gel-dikin ekonomikoak, diru-laguntzak, etab. ezin bana daitezkeela IGEen Zuzendaritza Batzordeko kideen artean, ez eta bazkideen artean ere.

1.2. IGEen helburuak

- Gurasoei beren seme-alaben heziketarekin zerikusia duten alderdi guztiei buruzko aholkua, sostengua eta laguntza ematea.
- Ikastetxeari hezkuntza jardueretan laguntzea.
- Gurasoen ikastetxearen kudeaketan parte har dezaten bultzatzea.
- Guraso eta ikasleentzat prestakuntza jarduera osagarriak antolatzea.





Helburu horietara iristeko antolatutako jarduerak egiteko ikastetxeko lokalak erabiltzeko eskubidea dute IGEek (indarrean den araudiaren arabera - 66/1987 Dekretuaren 7. artikulua), baita elkarteak soilik erabiltzeko lokal bat edukitzea ere, baldin eta ikastetxean horretarako lekua badago, eta, ez balego, ikastetxeko beste erabilera batzuekin partekatzeko.



1.3. IGEen ESKUMENAK


IGEak arautzen dituen legediaren arabera, IGEek hainbat eskumen dituzte, gogoan eduki beharrekoak:

- Hezkuntza Proiektua, Urteko Programazio Orokorra eta Barne Erregimeneko Araudia osatzeko eta aldatzeko proposamenak egin diezazkiokete Eskola Kontseiluari, Klaustroaren ardurapekoak diren alderdi pedagogikoak eta irakaskuntzaren arlokoak errespetatuz betiere.
- Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak proposa ditzakete. Jarduera horiek onartu ondoren, Ikastetxeko Urteko Programazio Orokorrean agertuko dira.
- Ikastetxearen funtzionamenduarekin zerikusia duten eta egoki irizten dieten alderdiei buruzko informazioa eman diezaiokete Eskola Kontseiluari.
- Eskola Kontseiluarentzat txostenak egin ahal izango dituzte, beren ekimenez edo ikastetxean erabakitzeko gaitasuna duen organo goren horrek hala eskatuta.
- Ikastetxeko instalazioez baliatu ahal izango dira, indarrean den araudian ezarritako baldintzen arabera.
- Hezkuntza Proiektuaren eta haren gaineko aldaketen ale bat jasotzeko eskubidea dute.
- Eskola Kontseiluak landutako gaiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dute, eta orobat dute bileren aurretik kontseilu horren gai zerrenda jasotzeko eskubidea, proposamenak egin ahal izateko.
- Ikastetxeak eskuratutako testuliburuei eta materialei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dute.
- Emaizta akademikoen eta Eskola Kontseiluak horiei buruz egiten duen balioespenaren berri izateko eskubidea dute.
- Gurasoei beren jardueren berri ematea
- Ikastetxeko gurasoen eta irakasleen arteko lankidetzaz sustatzea, ikastetxearen funtzionamendu egokiaren mesedetan.
- Ikastetxeko Eskola Kontseilurako ordezkari bat izendatu ahal izango dute, zuzenean.



2

IGEEn BETEBEHARRAK



2.1. LEGEZKO BETEBEHARRAK

IGEEn legezko lehenengo betebeharra Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren mendeko Erakundeen Erregistro Orokorrean izena emanda egotea da. ➔

Erregistro horretan daude gordailututa IGEen Sortze Agiria, Estatutuak eta Zuzendaritza Batzordearen osaera. Agiri horiek behar bezala eguneratuta egon behar dute, eta horregatik, aldaketaren bat eginez gero (Zuzendaritza Batzordearen baitako aldaketak barne), erregistroari eman beharko zaio horren berri. Gogoan hartu behar da, gainera, Elkartek arautzen dituzten lege berrien arabera eguneratu behar direla IGEen Estatutuak, 1/2002 Lege Organikoaren eta Euskadiko Elkarteen 7/2007 Legearen arabera, zehazki; beraz, 2002. urteaz geroztik estatutuak eguneratu gabe dituzten IGEek BIGE Gurasoen Elkartearekin harremanetan jarri beharko dute.



(Bizkaian erregistro hau Bilbon kokatuta dago Gran Via Kalean, 85 zenbakian.
Telefonoa: 94 4031371 eta posta elektronikoa: just-jurid-bizkaia@ej-gv.es)

2

IGEen BETEBEHARRAK

2.1. LEGEZKO BETEBEHARRAK

Hainbat udaletan dirulaguntzen eskaerak aurkeztu ahal izateko udal horren erregistroan izena ematea ezinbestekoa da (Bilboko Udalean adibidez Hiritarrekiko Harremanak izeneko Sailean izena eman behar dute elkarteek). IGE bakoitzak bere udalean galdetu beharko du betekizun honi buruz.

IGEa legez onartu eta erregistratuz gero elkarteak nahitaez eduki behar ditu Akten, Kontuen eta Bazkideen liburuak eguneratuta, gainera. Hiru liburu horiek zenbakituta eduki behar dituzte orrialdeak, eta liburuak erabiltzen hasi aurretik, legeztatu eta Elkartearen Erregistroan zigitatu behar dira.

Bi eratara lor daitezke liburu horiek:

- Liburu denda batean eros daitezke; aktak idazteko, kontuak eramateko edo bazkideak erregistratzeko berariaz diseinatutako liburuak eskura izaten dira dendetan. Liburu horietan egiten diren ohar guztiak eskuz idatzi beharko dira.
- Orri zuriak erabil daitezke, orriei zenbakiak ipinita (1etik 100era). Kasu horretan, ordenagailua erabili ahal izango da aktak erredaktatzeko, kontuak idazteko edo bazkide-



ak erregistratzeko; orri zenbakidunak inprimatu egin behar dira, eta liburu bakoitzarentzat osatutako karpeta batean gorde. Orriak zenbakitzeko lana hartu nahi ez izatera, zenbakitutako orri zuriak eros daitezke liburu denda, baita horiek gordetzeko karpetak ere. ➔

Ondoren, labur eta zehatz azalduko dugu zer adierazi behar den liburu horietako bakoitzean:

AKTA LIBURUA

IGEetako idazkarien erantzukizuna da. Batzarrei eta Zuzendaritza Batzordearen bilerei dagozkien aktak idatzi behar dituzte bertan. Aktan, gainera, bilera eguna, lekua, parte-hartzaileen izenak, gai zerrenda, hartutako erabakiak eta bileraren edo Batzarraren bukaera ordua adierazi behar dira.



Kasu batean zein bestean (orri zuri zenbakidunak nahiz berariazko liburuak) erabiltzen hasi aurretik, kontuan hartu behar da Elkartearen Erregistroa eraman behar direla, han legeztatu eta zigitatu ditzaten.

2

IGEEn BETEBEHARRAK

2.1. LEGEZKO BETEBEHARRAK

Aktek laburrak izan behar dute, gai zerrendaren arabera, eta gai bakoitzean hartutako erabakia aipatu behar da, eta baita erabakia nola hartu den ere –hau da, aho batez, isilpeko bozketaren bitartez edo eskua altxatuz edo onespenez (bozketa egiten ez denean eta kontrakorik ez dagoenean)–. Bilerako edo Batzarreko parte-hartzailearen batek berak esandakoa berariaz liburuan azaltzea nahi badu, hala eskatu beharko du eta hitzez hitz esandakoari dagokion testua eman beharko du bileran bertan edo lehendakariak adierazten duen epean, eta horrelaxe idatziko da aktan, edo bestela, testu horren kopia erantsiko zaio aktari.

Bestalde, aho batez onartutakoarekin bat ez datozen kideek boto partikularra eman ahal izango dute, idatziz, 48 orduko epean, eta onartutako testuari erantsiko zaizkie boto partikular horiek ere. Akta onartu ondoren, idazkariak izenpetuko du, lehendakariaren oniritziarekin. (→)

KONTUEN LIBURUA

Diruzainaren erantzukizuna da. Liburu horretan zehaztu beharko dira IGEen diru-sarrerak eta gastuak, baita kopuru bakoitza zein kontzepturi dagokion ere; hau da, gastuak edo

sarrerak diren. Kontuak Batzar Orokorrari aurkezten zaizkion aldiko, urteko saldoa erakutsi beharko da.

Ekitaldiaren amaieran diruzainak izenpetu beharko du, lehendakariaren oniritziarekin. Kontuek urtebeteko epea hartu behar dute, hau da, ikasturtearen arabera (irailaren 1etik abuztuaren 31ra) edo urte naturalaren arabera (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra) izan behar dute. Legearen arabera, era batera zein bestera egin daitezke kontuak, baina bietako edozein bide hautatzen dela ere, hautaketa hori estatutuetan zehaztu beharko da. Estatutuetan ezer zehazten ez bada, kontuak urte naturalaren arabera egin beharko dira, nahitaez.

Zuzendaritza Batzordean aldaketarik eginez gero, batzorde berriak Kontuen Liburua jasotzen duenean, liburuan bertan zehaztu beharko da ohar bat, karguan hasiera doazen lehendakariak eta diruzainak izenpetua, liburua zein datatan eman den adieraziz. Zuzendaritza Batzorde berriak data horretatik aurrerako erantzukizuna baino ez du hartuko bere gain. Kargua uztera doan Zuzendaritza Batzordeak, kontuen liburuekin batera, ordainagiriak eta aurreko agiriak eman beharko ditu.



(BIGEren webgunean, IGEak -antolakuntza, kudeaketa eta dokumentuak- atalean akta ereduak ikusi eta jaisteko aukera dago).

BAZKIDEEN LIBURUA

IGEEn bazkideen zerrenda da, eta bertan idazten dira dagokion ikaslearen aitaren, amaren eta, hala badagokio, tutorearen izena. Helbidea eta telefonoa ere ager daitezke, baina ez da ezinbestekoa. Urtero berritu daiteke zerrenda hori edo urtero zerrenda bera erabili, izen bakoitzaren alboan izan diren altak eta bajak zehaztuta. Garrantzizkoa da liburua eguneratuta edukitzea, eta idazkariaren erantzukizuna da hori.

Bestalde, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, garrantzitsua da IGEaren helburuak betetzeko ezinbestekoak ez diren elkartekide ohien datu pertsonalak jasotzen dituzten zerrendak ezabatzea.

2.2. ZERGA BETEBEHARRAK

Zerga betebeharrei buruzko iruzkin labur bat ere egitea komeni da. IGEak irabazi asmorik gabeko elkarteak badira ere, hainbat zerga bete behar dituzte, nahitaez izan behar dute Identifikazio Fiskalaren Zenbakia (IFK). ➔



Eskaera egiteko beharrezko agiriak hurrengoak dira:

- 036 eredu orria, Internetetik jaitsi edo Foru Aldundiaren bulegoetan jaso behar dena.
- Estatuto originalak eta kopia bat baita IGEaren Sortzearen akta.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan izen ematearen ebazpenaren akordioa.
- IFK eskatzen duen pertsonaren NANA (Batzorde Nagusiaren kidea izan behar duena).

IGEek jarduerak burutzeko **pertsona profesionalen zerbitzuak** kontratatzen badituzte, PFEZri dagozkion atxikipenen aitorpenak aurkeztu beharko dituzte, eta fakturaren bat 3.000 eurotik goragokoa bada, baita hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena ere.

Etekin ematen duen edozein jarduera eginez gero, liburuen salmenta adibidez, IGEek Balio Erantsiaren gaineko Zerga aurkeztu beharko dute.



Identifikazio Fiskalerako kodea (IFK) Bizkaiko Foru Aldundiaren bulegoetan eskatu behar da, Bilboko Camino Capuchinos de Basurto 2 helbidean




3

IGEn KUDEAKETA ETA ADMINISTRATIO ORGANOA

IGEen gobernu eta administrazioa honako kide anitzeko organo hauen esku dago:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza organo iraunkorra.



3.1. BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Batzar Orokorra, bazkide guztiek osatua, bazkideek beren borondatea adierazteko organoa da. Batzar Orokorra ohikoa edo ohiz kanpokoia izan daiteke. Ohikoa gutxienez urtean behin elkartu behar da eta honako akordio hauek eztabaidatu eta erabaki behar ditu, gutxienez:

- Aurreko batzarrari dagokion aktaren onespena.
- IGEaren jarduera plan orokorraren onspena.
- Urteko kontuen eta hurrengo ekitaldirako aurrekontuaren azterketa eta onspena.
- Zuzendaritza Batzordearen kudeaketaren onspena.

Batzar Orokorrarekin lotura duten alderdi guztiak (eskumenak, deialdiaren prozedura, akordioak hartzea, etab.) elkarrearen estatutuetan jasota daude. ➔

3.2. ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zuzendaritza Batzordeak IGEen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko ditu, Batzar Orokorrean onartutako xedapenen eta zuzentzaruen arabera.

Zuzendaritza Batzordeko kideak Batzar Orokorrak hautatzen eta izendatzen ditu.

Zuzendaritza Batzordea, oro har, lehendakariak, lehendakariordeak, idazkariak, diruzainak eta batzordekide kopuru jakin batek osatzen dute. Lehendakariordearen eta batzordekideen karguak ez dira nahitaezkoak, hala ere, komenigarria izaten da horiek aukeratzea.

IGEen estatutuetan Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendua arautzen duten hainbat alderdi agertzen dira, hala nola osaera, karguen funtzioak, bileren erregimena, etab. Edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin, honako jarraibide hauek kontuan hartzea gomendatzen dugu:

3

IGEn KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

- Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek helburu berberak ditugu. Ezinbestekoa da kide guztiek beren burua eroso eta baliagarri ikustea, eta horretarako, erantzukizunak banatu behar dira. Hori dela eta, Zuzendaritza Batzordearen jardueren erantzukizuna hartu behar dugu.
- Kontuan hartu behar da lehendakariaren eta lehendakariordearen funtzioa, halakorik balego, Zuzendaritza Batzordeko kide guztien lankidetzat bultzatzea dela: horretarako, lana banatu, Batzordeko gainerako kideek egiten dituzten proposamenak kontuan hartu, eta lanak eta erantzukizunak koordinatuko dituzte.
- Lehendakaria izango da elkarrearen buru, jendaurrean, baita solaskide nagusia ere, ikastetxeekin, Eskola Kontseiluarekin, Udalarekin eta abarrekin izan beharreko harremanetan.
- Idazkariak Batzordearen jarduerak koordinatzeko zeregina betetzen du, lehendakariarekin batera. Horrez gainera, dokumentazioaren erantzukizuna du, aktak, deialdiak erredaktatzen eta artxibatzen ditu, diru-laguntzak eta laguntzak eskatzen ditu, ziurtagiriak erredaktatzen ditu, etab., Batzordeko beste kide batzuekin batera, betiere.
- Diruzaina da diru kontuen arduraduna, baina aurreko kideek egin bezala, Batzordearen parte-hartzea dinamizatu behar du aurrekontuak egiteko, baliabideak lortzeko, etab.
- Batzordekideak, halakorik balego, aurreko karguekin batera arituko dira alor guztietan, eta berdintasunez parte hartuko dute lan banaketan; beste alor batzuen arduradun ere izan daitezke, hala nola eskolaz kanpoko zenbait jarduerena, festena, Eskola Kontseiluarena, BIGEren ordezkariarena, etab.
- Ikastetxearen neurriaren arabera, Zuzendaritza Batzordeak lan batzordeak osa ditzake IGEaren jardueretarako. Batzorde horietan Zuzendaritza Batzordeko kide ez diren beste guraso batzuek ere parte har dezakete, nahiz eta komeni den Batzordeko kideak izatea horien buru. Kasu horietan, kontuan hartu behar da batzordeak autonomiak izan behar dutela funtzionamenduari dagokionez, ahaztu gabe talde horietako bakoitzeko lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideekin koordinatuta jardun behar duela eta jarduera guztiei buruzko erabakiak Zuzendaritza Batzordearen baitan hartu behar direla.

ZUZENDARITZA BATZORDEA BERRITZEA: LEGEZKO ALDERDIAK

IGEek, legezko betebeharren atalean aipatu bezala, Elkarteen Erregistroari jakinarazi behar diote Zuzendaritza Batzordeko kideei dagokienez egiten duten berrikuntza edo aldaketa oro, eta han erregistratu beharko dute.

Garrantzizko alderdia da hori; izan ere, legez, IGEen ordezkariak Erregistroan erregistratuta dauden pertsonak dira. Gerta liteke IGE batek Zuzendaritza Batzordeko karguen ordezkari zuzen eta aldian-aldian egitea, baina aldaketa horiek Elkarteen Erregistroari ez jakinaraztea. Bada, egoera horretan, gerta liteke IGEaren legezko ordezkariak eta, hortaz, haren izenean legez esku hartzeko eskumena duten kideak (sinadurak, diru-laguntzen eskaera, gastuen onarpena, etab.) dagoeneko ez izatea Zuzendaritza Batzordeko kide, edo are gehiago, jadanik IGEko bazkide ere ez izatea, beren seme-alabek ikastetxetik alde egin dutelako. Horregatik, eta legezko ondorioak saihesteko helburuarekin, garrantzizkoa da

Elkarteen Erregistroari IGEaren Zuzendaritza Batzordearen osieran izandako aldaketa ororen berri ematea. ➔

ZUZENDARITZA BATZORDEA ETA GURASOEN PARTE-HARTZEA

Gurasoak Zuzendaritza Batzordean eta jarduera orokorretan parte hartzera bultzatzea eta sustatzea da IGEen ardurar nagusienetakoa.

Zoritxarrez, ez dago gai hori konpontzeko formula edo metodo zehatzik, baina egia da ahaleginarekin, irudimen pixka batekin, lanarekin eta kanpoko aholkularitzarekin (BIGE Gurasoen Elkartea) beste guraso batzuk ere hurbil ditzakegula Batzordeak antolatzen dituen jardueretara, baita Zuzendaritza Batzordean parte hartzera.

Egoera batzuetatik besteetara aldeak daudenez eta IGE bakoitzak zeinek bere ezaugarriak dituen, jarraibide orokor batzuk baino ez ditugu proposatuko, kontuan har daitezten:




(Zuzendaritza Batzordean aldaketarik egiteko garaian BIGE Gurasoen Elkartearekin harremanetan jartzea gomendatzen dizuegu, zer dokumentazio behar den jakinarazteko eta Erregistrora eraman ahal izateko)

3

IGEn KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

3.2. ZUZENDARITZA BATZORDEA



- Batzordea berritzea: Estatutuetan zehazten da zer iraupen izango duen Batzordearen agintaldiak. Oro har, bi urteko iraupena izaten dute, eta urtero-urtero Batzordearen erdia berritu ohi da. IGE batzuetan agintaldia lau urtekoa izaten da, Eskola Kontseiluaren agintaldiarekin bat etortzeko helburuarekin, Batzordeko kideak baitira familien ordezkariak Eskola Kontseiluaren barruan.

BIGEn Zuzendaritza Batzordeko kideek beren karguan gutxienez hiru ikasturtez jardutea komeniko litzatekeela pentsatzen dugu. Baina horrek ez du esan nahi bitarte horretan Batzordea berritu behar ez denik. Ikastetxearen ezaugarrien arabera, berritzea ehunekoen arabera egin daiteke, urtean behin; era horretara, aldaketak mailakoak izango dira (inoiz ez aldiko %50 baino gehiagoko berrikuntza) eta, Zuzendaritza Batzordearen eraginkortasunari dagokionez, horrenbeste kalte eragiten duten kudeaketa arloko hutsuneak saihestuko lirateke.

Edonola ere, Zuzendaritza Batzordeko karguetara iristeko, ordezkatzeko lagunduez baliatzeko ahaleginak egin behar dira: alegia, ikasturte batez titularrek beren karguan jardutea ondorengo aukeratuko dituztenekin batera, Batzordeko lana zertan datzan ikasteko.

- Kide berrien harrera planifikatzea. Oso gai zaila da kide berrien harrera; izan ere, kide berriei iruditzen bazaie ez dituztela kontuan hartzen edo ez dutela erantzukizun, betebeharrak edo parte-hartze errealik, berehala utziko dute Zuzendaritza Batzordea.
- Arreta jartzea batzordekideek edo kolaboratzaileek proposatutako ideietan eta Batzar Orokorrean gurasoek egiten dituzten proposamenetan ere.
- Ideiaren bat proposatzen duen pertsonari aukera ematea ideia hori martxan jartzeko erantzukizuna har dezan.
- IGEko kide ez diren gurasoei elkarrearen jarduerari buruzko informazioa helarazteko ideia eta modu berritzaile eta interesgarriak ikertzea, diseinatzea eta praktikan jartzea. Zenbaitetan, bidaltzen dugun informazioak gure helburuaren kontrako ondorioa sortzen du. Informazioa bidali aurretik landu.
- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, gurasoentzako bilerak edo jarduerak antolatzen diren orduetarako ludoteka zerbitzua antolatzea. Hainbat

formula daude merke molda daitezkeenak. Haur jaioberrak edo oso haur txikiak dituzten gurasoei dagokienez, bileretan edo jardueretan horiekin batera parte hartzeko aukera eman dakieke.

- Ikastetxearen ezaugarriak kontuan hartzea bileretarako eta Batzarretarako deialdia egiteko garaian (eskola erai-kinak hainbat kokalekutan egotea, familien bizilekuaren hurbiltasuna, etab.), baita deialdia egiteko modua hautatzeko garaian ere.
- Ikasgelako, ikasturteko, etab. ordezkariaren figura ezartzea, ikastetxearen ezaugarrien eta aukeren arabera. Hainbat esperientzia positibo gauzatu dira bide horretan.
- Jarduera zehatzak antolatzeko boluntarioen parte-hartzea proposatzea.
- Edonola ere, hezkuntza komunitateak eta guraso taldeak, bereziki, ez dezala derrigorrezko lana denaren, gehiegizko arduraren duenaren, eta abarren sentipena izan. Izan ere, horrek uxatu egiten baititu hautagai izan daitezkeen partaideak.

4

IGEen KUDEAKETARI LOTURIKO
BESTE GAI BATZUK

4.1. IGEen JARDUERAK

Gida honen lehenengo atalean IGEen legezko eskumenak deskribatu ditugu. Eskumen horiek ikusita esan daiteke IGEen jarduerak ez dutela izan behar eskolaz kanpoko jardueretara mugatuak, eta eskumen horiek IGEen eguneroko jarduera bihur daitezen ahalegindu beharko genukeela. Baina, nola lor daiteke hori?.

Hona hemen hainbat proposamen:

Ikastetxeari dagokionez:

- IGEen jarduerak ikastetxeko Eskolaz Kanpoko Jardueren eta Jarduera Osagarrien Urteko Plangintzan sar daitezen eskatzea.
- Eskola Kontseiluan modu aktiboan parte hartzea, bazkide diren gurasoentzat prestakuntza jarduerak antolatuz, ikastetxeko goreneko ordezkaritza eta erabaki organoan eraginkortasun handiagoz lan egiteko hainbat urrats jasotzeko helburuarekin.
- Aldian-aldean ikastetxeko Zuzendaritzarekin elkartzea.

Guraso eta ikasle taldeari dagokionez:

- Gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeen jarduerak egiten ahalegintzea.
- IGEen antolamenduari, jarduerari, Eskola Kontseiluan egiten duten lanari eta abarri buruzko informazioa emateko jarduerak prestatzea.
- Gurasoentzat tailerrak eta saioak antolatzea, seme-alaben heziketaren zereginean laguntzeko ez ezik, ikas-tetxera hurbiltzeko ere.



- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzean horiek hezkuntzaren, aisiaren eta gizartearen ikuspegitik bete behar dituzten ezaugarriak kontuan hartzea.
- Eskolaz kanpoko jarduera horietarako begiraleak jardueraren arabera eta parte-hartzaileen adinaren ezaugarrien arabera hautatzea.
- Eskubidez dagozkien diru-laguntzak eta laguntzak eskatzea.
- Zuzendaritza Batzordeko kideentzat prestakuntza jarduerak antolatzea, Guraso Elkarteen kudeaketa hobetzeko tresnak eskainiz.

Komunitateari dagokionez:

- BIGE Gurasoen Elkarteko Batzar Nagusira joatea.
- Beste IGE batzuekin bilerak egitea.
- Hezkuntza komunitatearen ingurune sozialarekin harremanak sortzea: auzo elkarteak, kultura elkarteak, etorkin elkarteak, Udalak, Mankomunitatea... sare lanari balioa emateko helburuarekin.

4

IGEn KUDEAKETARI LOTURIKO BESTE GAI BATZUK

4.1. IGEen JARDUERAK

PARTE HARTZEKO PROPOSAMENAK

Prestakuntza eskaintza IGEetako Zuzendaritza Batzordeko kideei (Elkartearen kudeaketa hobetzeko tresnak eskainiz) eta baita Eskola Kontseiluko kideei ere. Prestakuntza saio horiek doakoak dira eta ikastetxean bertan egin ahal dira.

BIGE Gurasoen Elkartearen Batzar Nagusian, BIGE Gurasoen Elkarrekin koordinaturik antolatzen diren eskualde bileretan eta beste IGEekin egiten diren bileretan parte hartu. Hezkuntza gaiak eta praktika onei buruzko topaketetan eta jardunaldietan parte hartu.

Garrantzitsua da IGEen parte hartzea, informazioa zuzenean jaso eta hezkuntzaren arloko gaurkotasan handiko gaiak eztabaidatzeaz gain, IGEen ordezkarien arteko komunikazio zuzena eta informazio eta esperientzia trukea bultzatzen baita.

4.2. IGEEn EKONOMIA

IGEEn ekonomia, oinarrian, kuotek eta diru-laguntzek osatzen dute, diru-sarrera nagusien atalari dagokionez, eta eskolaz kanpoko jarduerak eta gurasoentzako jarduerak, gastu nagusien atalari dagokionez.

Atal honetan, IGEEn kontuei dagozkien hainbat kontzeptu argitzen saiatuko gara.

DIRU-SARRERAK

Kuotak: ikasleen gurasoek, borondatez, elkarteko kide izateko ordaintzen duten diru kopurua. Parte hartzeko modu hori oinarritzat jotzen da. Izaera boluntarioa azpimarratzen dugu, izan ere, Guraso Elkarteetan parte hartzea, legez, borondatezkoa da, eta gurasoak ezin dira bazkide izatera behartu.

Guraso Elkarteko kide egiteak bazkideei aukera ematen die IGEek berariaz haientzat ezarritako zenbait onuraz gozatzeko.

Kuota Zuzendaritza Batzordeak finkatzen du, eta hura onartzeko akordioa Batzarraren esku jartzen du. Kuotak ohikoak (oro har, ikasturte hasieran kobratzen direnak) edo ohiz kanpokoak izan daitezke. Kuotak nola kobratu, familia-ka edo ikasleka, IGEaren Estatutueta zehaztuko da, baina bi formulak dira baliozkoak.

Laguntzak eta diru-laguntzak: erakundeek IGEak mantentzeko egiten dituzten ekarpenak dira. Atal honetan sartzen da Hezkuntza Sailak urtero IGEei ematen dien diru-laguntza, eta zenbait udalek, hala nola Bilbokoak, ematen diena. Diru-laguntza horiek tramitzatzeko data jakin batzuk daude finkatuta, eta ematen den kopurua baremo baten arabera zehazten da. (→)

Beste diru-sarrera batzuk: ohiz kanpoko diru-sarreratzat hartzen dira enpresek, erakundeek edo partikularrek esku-zabaltasunez egiten dituzten ekarpenen bitartez lortzen direnak. Diru-sarrera horiek, oro har, loteriaren salmentaren bitartez edo tokiko enpresen ekarpenen bitartez (supermerkatuak...) jasotzen dira, eta jarduera zehatzak finantzatzeko balio dute (festak...).



Diru-laguntzak Buletin Ofizialetan iragartzen dira, eta BIGE Gurasoen Elkarteak IGEei deialdien berri emateaz gainera, horiek tramitzatzen eta aurkezten lagun dezake

GASTUAK

IGEn gastuak eskolaz kanpoko jarduerak, ikastetxean jarduera osagarriak egiteko ekarpenek, aste kulturek, prestakuntza jarduerak, kudeaketa gastuak eta BIGE Gurasoen Elkartearen bazkidetza kuotek osatzen dituzte.

Jarduera ekonomiko guztiak Kontuen Liburuan adierazi behar dira, eta, azaldu bezala, liburuak elkartearen Erregistroak zigilatuta egon behar du. Ikasturte bakoitzaren hasieran diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua egin behar da, Batzar Orokorrean aurkezteko eta onartzeko.



EKONOMIAREN ARLOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE GAI BATZUK

- Jardueren aurrekontuan kudeaketa gastuak sartu behar dira; beraz, jarduerak sortzen duen gastuari %5 eta %10 bitartekoa eranstea komeni da.
- Elkartea irabazi asmorik gabeko erakundea da. Horrek esan nahi du bazkideek ezin dituztela, inolaz ere, IGEn geldikinak beren artean banatu. Baina horrek ez du esan nahi ikasturte amaieran IGEn zero balantzea eduki behar duenik. Desegokia izateaz gain, IGEn urteko aurrekontuaren %10 eta %20 bitarteko "maniobra funtsa" gordetzen saiatu behar dute.
- IGEn bankuetako kontuek "elkartuak" izan behar dute. Horrek esan nahi du bankuko eragiketarak Zuzendaritza Batzordeko bi kidek izenpetu behar dituztela, gutxienez (lehendakariak eta diruzainak, oro har). Inolaz ere sinadura bakar batek.

4.3. IGEen ARTXIBOA

Artxiboa ongi antolatuta edukitzeko eta ongi kudeatzeko premia da IGEek konpondu gabe duten gaietako bat. Artxibatzeak sistema egokiak Zuzendaritza Batzordearen eguneroko lana errazten du eta hurrengoei informazioa pasatzean ere laguntzen du.

Artxibategian hainbat atal antolatzea proposatzen dugu: lehena posta harremanetarako, beste bat IGEaren barne dokumentaziorako (estatutuak, liburuak...), hirugarrena dokumentazio ofizialerako (ikastetxea, Udala, Hezkuntza Ordezkaritza...) eta ikastetxeko dokumentu ofizialak gordetzeko (Hezkuntza Proiektua, AJA...), eta, beste bat, kontsulta dokumentuetarako (argitalpenak, aldizkariak, gidak...).

Idazkariak izan behar du artxibategiaren arduraduna, Zuzendaritza Batzordeko beste kide batzuen laguntzarekin.



4

IGEn KUDEAKETARI LOTURIKO BESTE GAI BATZUK

Artxibategia hainbat erataria berritu daiteke:

- Ohiko gutunak eta noizean behingoak ikasturtero birziklatzen dira.
- Gutun ofizialak baliotasuna galtzen dutenean edo indargabetzen direnean birziklatzen dira.
- Estatutuak, berritzen direnean; Elkarleen Erregistroaren ziurtagiriak bezala.
- Aktak eta kontuak 5 urtez behin birziklatzen dira, baldin eta ezin badira ordenagailuan artxibatu edo informatikoki gordetzeko beste sistema baten bitartez gorde.
- Ikastetxearen, Udalaren, Ordezkaritzaren eta abarren agiri ofizialak indargabetzen direnean, iraunaldia amaitzen denean edo antzeko beste agiriren batek ordeztu dituztenean birziklatzen dira.
- Kontsultarako dokumentazioa ordezkatzeko denean edo indargabetzen denean birziklatzen da. (→)



IGEn dokumentazio guztia ikastetxean geratu behar da, Zuzendaritza Batzordearen esku.

4.4. IGEEn ERANTZUKIZUNA

IGEek, beren jardueri dagokienez, bi erantzukizun mota dituzte: alde batetik, ikastetxe barruan zein kanpoan egiten dituzten jardueri dagokien erantzukizun zibila, eta bestetik, jarduera horiek elkartearen izenean egiten dituzten pertsonetik (gurasoak eta/edo begiraleak) har dezaketen erantzukizuna.

ERANTZUKIZUN ZIBILA

Pertsona batek (kasu honetan pertsona juridikoa: IGEak) beste pertsona bati eragindako kaltearen ondorioz –egite edo ez-egitearen ondorioz, edo nolabaiteko axolagabekeria egon delako– bere gain hartzen duen betebeharra da erantzukizun zibila. Kalte horri erantzun egin behar zaio, bai egindako kaltearen kopuru baliokidea ordainduz, bai kaltegalerei dagokiena ordainduz.

Gai horretan, IGEek erantzukizunak izan ditzakete beren jardueren bitartez hirugarrenei egindako kaltearen ondorioz, beraz, erantzukizun zibileko aseguruaren bitartez estalita egotea komeni da.

BIGE Gurasoen Elkarteko bazkide diren IGEek estalita dute sor daitekeen arrisku hori, Federazioak izenpetuta-

ko aseguru baten bitartez. Zenbait jardueraren antolaketa, gerta liteke IGEei erantzukizun zibila estalita duela ziurtatzen duen ziurtagiria eskatzea. IGEek ez badute halakorik, BIGE Gurasoen Elkarteari eska diezaioke.

KONTRATUZKO ERANTZUKIZUNA

Gerta liteke IGEek, ikasleei eta gurasoei eskaintzen dizkieten zenbait jarduera egiteko, langileak behar izatea. Hala gertatzen da, esaterako, eskola kiroleko begiraleekin, eskolaz kanpoko jarduerekin, haurtzaindegi zerbitzuekin, etab.

Ardura horri dagokionez, bi egoera sor daitezke: langile horiek beren funtzioak borondatez betetzea, inolako ordain ekonomikorik gabe; edo lan edo zerbitzu kontratu baten bitartez betetzea.

Ikus ditzagun banan-banan bi egoera horiek:

Borondatezko lankidetzak

Borondatez laguntzen duten gurasoeekin, kultura eta kirol erakundeetako boluntarioekin edo ikasle ohiekin egindako jardueri dagokie. Boluntario horiek denboraldi laburretara-

4

IGEen KUDEAKETARI LOTURIKO BESTE GAI BATZUK

ko eta ordu gutxiko arduraz eskaintzen dizkiete IGEEi beren ezagutzak eta zerbitzuak.

Kasu horietan ez da idatziz inolako konpromisorik adierazten, beraz, oso zaila da boluntarioen konpromisoak eta ardurak finkatzea.

Lankidetzaren IGEaren elkartekideak diren gurasoek edo tutoreek egiten duten kasuetarako BIGE Gurasoen Elkartearen webgunean aurkitu ahal duzue informazioa.

Egoera horiek arautzeko helburuarekin, **boluntario kontratu** bat egin liteke boluntarioen eta IGEen artean. Bertan bi alderdien eskubideak, betebeharrak eta konpromisoak zehazten dira. Horrez gainera, kontratu horren bitartez, erantzukizun zibileko eta osasun laguntzarako aseguru bat izenpetzen da boluntarioaren izenean, jarduera egin bitartean istripurik gertatuz gero babestuta egoteko. Kontratu honen kudeaketa BIGE Gurasoen Elkartean egiten du.

Lan kontratua

IGEEK antolatutako jarduera jakin bat sarri egiten bada arautzea komeni da, bai jarduera ematen duen pertsonari lan kontratua eginez, bai enpresa bat edo profesional bat bada, zerbitzuak emateko kontratazio bidez.

- **Lan kontratua:** alderdi administratibotik lan kontratu bat egitea IGEentzat konplexua izan daiteke. Enpresa bezala izena eman behar da, nominak ordaindu, gizarte aseguru, PFEZ atxikipenak, kontratuaren alta eta baja... Informazioa behar baduzue BIGE Gurasoen Elkartean kontsultatu ahal duzue.

- **Zerbitzuak emateko kontratua:** jarduerak enpresek edo profesionalek ematen badituzte, errenta kontratu bat edo zerbitzuak emateko kontratu bat izenpetu behar da. Enpresek edo profesionalek emandako zerbitzuei dagokien faktura egin beharko dute, dagokien zerga atxikipenak barne. (→)



(BIGE Gurasoen Elkartearen webgunean –IGEak - antolakuntza, kudeaketa eta dokumentuak atalean– kontratu mota horretarako eredu bat kontsultatu eta jaitsi daiteke)

5

BIGE GURASOEN ELKARTEARI
BURUZKO INFORMAZIOA

BIGE Gurasoen Elkartea Bizkaiko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkar-teen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 224 IGE dira Federazioko kide, hau da, Bizkaiko IGEen % 93. Bizkaiko ikastetxeen sare han-diena da.

Horregatik, BIGE Gurasoen Elkartea da Bizkaiko ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Bizkaiko hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negozioazietan eta eztabaidetan.

Gure helburua Bizkaiko ikastetxe publikoen beharrei erantzun eta horren ekimenak jaso, sustatu eta defendatzea da. Hori dena ordezkatzeko dituen elkarten bidez, gure seme-alabek hezkuntza hobereena eta baliabide hobereenak izan ditzaten prestatu-ntza pertsonal eta profesional sendoa lortu ahal izateko.



Bizkaiko gurasoen elkartea



gurasoen elkartea

Elkarte independentea gara. Demokraziaren gardentasunarekin bat egiten dugu eta parte hartze osoa eta haien seme-alaben hezkuntza prozesuan familiek erabakitzeke duten ahalmena defendatzen ditugu.

Bestalde, BIGE Gurasoen Elkartea euskal irakaskuntza publikoko guraso gehienak ordezkatzeko dituen **EHIGE** Konfederazioko (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea) kidea da.

BIGE Gurasoen Elkartearen **Batzar Nagusia**, IGE guztiek osatuta, horien borondatea adierazteko organoa da.

IGE guztiak protagonistak izatea eta erabakiak hartzean parte hartze aktiboa izatearen garrantzia aipatu beharra dago. Modu honetan kudeaketan laguntzen dugu eta ikastetxe bakoitzeko egoera eta sentitzea zabaltzen dugu.

5

BIGE GURASOEN ELKARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

5.1. BIGE ZURE ZERBITZURA

KUDEAKETAN ETA ERABAKIETAN PARTE HARTU, HONAKO BIDE HAUETATIK:

- IGE Gurasoen Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kideak proposatuz.
- Eskualde bileretan parte hartuz.
- Zuzendaritza Batzordearen hileko bileretan parte hartuz.
- Batzar Orokorrean parte hartuz.

INFORMAZIOA JASO, HONAKO BIDE HAUETATIK:

- IGEei posta arruntez edo posta elektronikoz aldian-aldian komunikazioak bidaliz, IGEEK beraiek emandako helbidera.
- Asteroko buletin digitala. Izena eman ahal duzue webgunearen bidez edo BIGEra deituz.
- Zuzendaritza Batzordearen bileren, eskualde bileren eta Batzar Orokorrearen bidez.
- Federazioaren webgunearen bidez: www.bige.org
- Sarekide webgunea: www.sarekide.net
- Bizkaiko Eskola txikien webgunea: www.bizkaikoeskolatxikiak.org

- Ibiltzen aldizkaria.
- Banakako harremanaren bidez, zuzenean Federazioari eskatuz (telefono bidez, posta arruntez, e-postaz, etab.) edo ikastetxera bertara Federazioko langile teknikoa joan dadin eskatuz.

AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA:

IGEEen jarduerekin eta ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duten gai guztietan:

- **Aholkularitza pedagogikoa:** Eskola Kontseiluaren funtzionamendua, eskolaz kanpoko jarduerak, Hezkuntza Proiektua, Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA), Urteko Plana...
- **Aholkularitza juridikoa:** IGEEen erantzukizunak, erreklamazioak, babes juridikoa...
- **Elkarteei buruzko aholkularitza:** estatutuak, Elkartearen Erregistroa, antolamendua...
- **Gizarte aholkularitza:** aholkularitza eta parte-hartzea udalekin, Hezkuntza Ordezkaritzarekin... egiten diren bileretan.

5

BIGE GURASOEN ELKARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA
BIGE ZURE ZERBITZURA**PRESTAKUNTZA:**

Gurasoei bi alderdi hauei buruzko prestakuntza eskaintzen zaie:

A) Gurasoen partaidetza duten organoetako kideei:

- Eskola Kontseilua: aginpidea, legeak, estrategiak...
- IGEen Zuzendaritza Batzordea: parte-hartzea, jarduerak, antolamendua...

B) Seme-alaben hezkuntzan laguntzeko baliabideak eta trebetasunak:

- Guraso tailerrak eta eskolak.
- Mintzaldiak, hitzaldiak...

Gai desberdinei buruzko informazioa gure webgunean aurkitu ahal duzue www.bige.org

ZERBITZUAK:

- **Aseguruak:** BIGEko bazkide kuota ordainduz gero, IGEak aseguru bat du, bere jardueren erantzukizun zibila estaltzen duena.

Horrez gainera, borondatezko aseguru bat eskaintzen da ikasleen istripuei aurre egiteko, baita boluntarioen aseguru deritzona ere, IGEen jardueretan lankidetzan jarduten duten kideei estaldura emateko (eskola kiroleko begiraleak, eskolaz kanpoko jarduerak...).

- **IGEetan gerta daitezkeen gatazketan bitartekaritza eta konponketa.**
- **Diru-laguntzen izapideak eta kudeaketa:** aholkularitza eta laguntza ematen da, Eusko Jaurlaritzari, udalei, etab. diru-laguntzak eskatzeko izapideak betetzeko. Eta Elkartearen Erregistroarekin zerikusia duten izapide guztiak (ziurtagiriak, Batzorde aldaketa, estatutuak...).
- **Zerbitzu enpresen zerrenda, monitoreen lan poltsa,...**

5

BIGE GURASOEN ELKARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

EUSKARA ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK. IKASLEEI ETA FAMILIEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK

- “Euskaraz Bizi” euskararen erabilera sustatzeko jarduerak baita euskal kultura zabaltzekoak ere: euskal musika tresnak, antzerkia, herri kirolak, hitzaldiak...
- Eskolaz kanpoko ekintzak: antolakuntza eta aholkularitza; tailerrak, bisita kulturalak, txangoak, udalekuak...
- Jaiak eta bestelako ekitaldiak: Eskola Publikoaren Jaia, Euskararen eguna, eskolako jaia, aste kulturalak eta egun bereziak antolatzeak aholkularitza eta laguntza.
- Beste erakundeekin lankidetzan: DOREMIKA kontzertu didaktikoak, zinea euskaraz, Korrika, Euskaratek, antzerki jardunaldiak,...

GURE ARTEAN. KULTUR ARTEKO EGITASMOAK

Urteak daramatzagu kultura arteko jarduerak antolatzen Bizkaiko Lurraldean. Gure inguruan dauden hainbat kulturak aberastu, ikasi eta pertsonak bezala garatzeko aukera ematen digute. Kultura horietako bakoitza indibidualki jorratzeak berezko zentzua izan dezaten laguntzen digu, eta, aldi berean, haiek gure nortasunaren errealitateari, errealitateei lotzeko aukera ematen digu.

Gure proiektuen batzuk: “Batzen Gara” irudien lehiaketa; Bizikidetzarako antzerkia; kultur artekotasun tailerrak;



Sarekide - kultur artekotasun eta garapenerako hezkuntza baliabide eta esperientzien web gunea -www.sarekide.net; Axa-Mixa eskoletara- Hurrek egindako eta hurrentzako irratiaioa...

ESKOLA TXIKIAK

BIGE Gurasoen Elkarteak hezkuntza publikoa nonahi eskain dadin babesten du. Hori dela eta, Eskola Txikien arteko lankidetzaz arduratzen da, ikastetxe berriak ireki daitezen sustatzen du eta bertako hezkuntza esperientziak erakusten ditu.

www.bizkaikoeskolatxikiak.org

KONTSUMO ARDURATSUA

Kontsumo arduratsuz sentsibilizazio jarduerak Bizkaiko eskola publikoetan, ikasleei, irakasleei eta gurasoei zuzenduta. Hitzaldiak, erakusketak, mahai informatiboak eta bestelako jarduerak gai bakoitzean espezializatutako GGKE batzuekin lankidetzan.



5.2. FEDERAZIOAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

- **HELBIDEA:**
Ronda 27, 1. ezk. 48005 - BILBAO (Alde Zaharra)
- **TELEFONOA:**
94 416 93 60 / FAX: 94 416 66 48
- **E-MAILA:**
bige@bige.org
- **WEBGUNEA:**
www.bige.org

Federazioaren egoitzaren ordutegia:

- Astelehenetik ostegunera: 9:00- 14:00 eta 16:00 -18:00
- Ostiraletan : 9:00 - 14:00

Ordutegi horretatik kanpo hitzordua eskatzeko aukera bada-go, Federaziora telefonoz deituta.

Koordinazio orokorra eta zuzendaritza

Reyes Lengaran Martín
e-maila: bige@bige.org

Prestakuntza eta aholkularitza

Benilde Sanchez
e-maila: bsanchez@bige.org

Euskera eta kultur artekotasuna

Irene Uria
e-maila: iuria@bige.org

Kontsumo arduratsua

Paloma Migliaccio
e-maila: pmigliaccio@bige.org

Administrazioa, zerbitzuak

Marian Vesga y Paloma Migliaccio
e-maila: bige@bige.org